



Espedientearen kodea: 2023ZZ020009
Espedientearen gaia: 2023an arte sorkuntza sustatzeko dirulaguntzak.
Titularra: Oiertzungo Udala

DEKRETUA

2022ko ekainaren 29an onartu zituen Udaltzak “Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak arautzeko Ordenantzak”, 2022ko irailaren 20an argitaratu zirenak GAOn.

Era berean, 2021eko azaroaren 27an onartu zuen Oiertzungo Udaltza Osoak “Oiertzungo Udalaren 2022-2024 dirulaguntzen Plan Estrategikoa”.

Aipatutako dirulaguntzen Ordenantza eta 2022-2024 dirulaguntzen Plan Estrategikoa kontuan hartuta, Udalak 2023ko martxoaren 28an onartu zituen “2023an Oiertzunen arte sorkuntza eta ekoizpen prozesuak garatzen ari diren Oiertzungo artistei diru laguntzak banatzeko oinarriak”.

Dirulaguntza hauetan kontuan izan dira dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Lege Orokorra, Oiertzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2022-2024rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako indarrean dagoen araudia.

Dirulaguntza hauen oinarrietan ezartzen den bezala, beren eskaerak epearen barruan aurkeztu dituzte Oiertzunen arte sorkuntza eta ekoizpen prozesuak garatzen ari diren Oiertzungo artistek.

Kultura Zerbitzuko arduradunak irailaren 7an gai honi buruz luzatu duen txostena ikusirik, eta beronekin adostasunean, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan honakoa

ERABAKI DUT

Lehena.- 2023an Oiertzunen arte sorkuntza eta ekoizpen prozesuak garatzen ari diren Oiertzungo artistei dirulaguntzak banatzeko eta ordaintzeko dokumentu honetan txertatzen den diru-banaketa onartzea.

Bigarrena.- Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 10.000 € euroko gastu-onarpena egin zen, Oiertzungo Udalaren 2023 urteko aurrekontuko aurrekontuko 1 0801.481.334.00.08.2023 (A-840-2023) zenbakidun partidaren kontura.

Hirugarrena.- Oinarriek ezarri bezala, txostenean adierazitako lehen ordainketak orain egitea (%80ari dagokiona, hau da guztira 8.000 €) eta gainerakoa (% 20ari dagokiona, hau da, guztira 2.000 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordaintzea.

Laugarrena.- Interesatuei jakinaraztea dagokien dirulaguntzaren justifikazio-agiriak (eskabide-orria + IV, V, eta VI eranskinak) eta gastuen justifikanteak, urriak 1-31 bitarteko epean, udal erregistroan aurkeztu behar dituztela. Orduan ordainduko zaie gainerako % 20a.

ARTE SORKUNTZARAKO DIRULAGUNTZAK 2023 URTEA

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	GUZTIRA PUNTUAK	ESKATU	DIRU-LAGUNTZA	% 80 ORAIN
-------------	-----------	-----------------	--------	---------------	------------



OIARTZUNGO
UDALA

Mirokutana Koop Elk Txikia	"Judoka" laburmetraia	66	5.000,00 €	921,56 €	737,24 €
Mirokutana Koop Elk Txikia	"Komando Marmitako" laburmetraia	61	5.000,00 €	851,74 €	681,39 €
Lur Live arte eta natura	Lur Live 2023	71	3.000,00 €	991,37 €	793,10 €
Aitor Bengoechea Zabalza	"Txoriak" bideoklipa grabatzea	62	3.000,00 €	865,70 €	692,56 €
Oihan Astigarraga Arruabarrena	"Aheria" albuma grabatzea	56	1.200,00 €	781,93 €	625,54 €
Alain Mendizabal Diaz	"Barea den oro" bideoklipa grabatzea	63	2.200,00 €	879,67 €	703,73 €
Karen Muñoz Etxebeste	"Jausi" dantza eta antzerki pieza	75	1.520,00 €	1.047,22 €	837,78 €
Iraitz Mateo Gogorza	"IKUSezinENTZUN EZKOA" laburmetraia	80	3.050,00 €	1.117,04 €	893,63 €
Xabier Salaberria Gonzalez	"Liburuaren hegoak eta Bertso filosofikoak"	75	5.100,00 €	1.047,22 €	837,78 €
Xabier Lopez Jimeno	"Olio gris mundua" antzerki testua idaztea	66	8.000,00 €	921,56 €	737,24 €
Amets Badiola Rubio	"Dozenak dozte" argazki erakusketa	85	575,00 €	575,00 €	460,00 €
				10000,00	8000,00

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU642b5caa-8f6a-499b-8cf5-8e0b6cfb09ee**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopia eroso eta sinadura egiaztatze, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023ZZ020009-Dekretua/Decreto (ANDER,IRIARTE,ALVAREZ)